



Apustua ala bizia

xa **sencilamente**
transformar la realidad

Zein da abiapuntua?

Azken urteetan, zorizko jokoek egundoko iraultza izan dabe, jokalarien hazkunde esponentzialaren igoera nabarmena izan dalako eta askotarikoa eskaintako joko-modalidadeen eskaintza. Bakarrik Euskal Herrian, iaz, 218,10 milioi euro jokatu ziran zuzeneko apustuetan eta on-line jokatu ziran 121,52 milioi.

Batez be egoera bik eragin dabe azken urteetako gorakada hau: alde batetik, on-line egiten diran zorizko jokoen legalizatzea ekarri eban Jokoaren Ordenamenturako 13/2011 Legea indarrean sartzea. Honen ondorioz, zuzeneko joko-eskaintzak be gora egin eban nahitaez, bere mailari eutsi ahal izateko, joko-areto gehiago zabalduz eta taberna eta abarretan apustuak egiteko makina gehiago jarriz (2.100etik gora Euskal Herrian). Beste alde batetik, gero eta hedatuago dagozan teknologia barriek eta sareek zuzeneko apustuetan nekez lortu daitezkean prestasun, eskuragarritasun eta arintasuna emoten deusez on-line jokolari. Zerbaitegatik, apustuak on-line egiten dabezan personeren kopuruaren igoera ikaragarria izan da: estaduan, erabiltzaile aktiboen

Cantidades jugadas En millones de euros



BELÉN TRINCADO / CINCO DÍAS

(joko-plataforma batean izena emon daben personak) kopurua milioi batekoa zan 2013an eta milioi bi eta erdikoa da orain; eta jokolari aktiboena (zenbat joko-plataformetan erregistratuta dagoan kontuan hartu barik, jokatu egiten dauan persona fisikoa) 640.000etik 1,4 milioitara pasatu da.

Bistakoa da jokoa sarrera-iturri handia dana administrazioentzat eta, ondorioz, ez da harrizkoa on-line jokoen publizitateak –lege-murritzeta gitxigaz- jokalarien kopuruaren pare gora egin izana: 2,7 milioi iragarki emon ebezan 2017an Espainian, asko eta asko gazteen artean erakargarriak diran pertsonaien eta kirol-taldeen eskutik (apustuen %97tik gora kirol-apustuak dira).


Hartzaile barriak eta ondorioak

Publizitate-euskarri larregi dauan eskaintza erakargarria da eta, gainera, arin egiten dira apustuak eta berehala lortu emaitzak eta ondorioz apustu-egileen kopurua asko gehitu da eta ohiko jokolariak baino gazteagoak dira apustu-egile barriak (gehienak 25 eta 34 urte bitarteko gizonezkoak, adin txikiko dirala jokoa hasten diranak). On-line jokoak eragiten ditu ludopatia kasu gehienak Espainian 26 urtetik beherakoen artean, izan ere, gazteria erraz jausi daiteke on-line jokoen sareetan, gazteek muga barik dabizelako apustuetarako sarbide nagusi diran sakelakoa eta Internet.

Las cifras del juego online en España

Actividad promocional del juego online
En miles de euros

■ Total (incluye bonos y otras ofertas)
■ PUBLICIDAD Y PATROCINIOS



Instagram, Twitter edo Facebooken "atsegin dut" bat lortu daiken lez lortzen dau norbait aplikazinora sarriago sartzea; saria jasoteko aukeraren (txikia bada be) eraginez, behin eta berrero egiten da apustu. Gainera, txanpon-makinaren palanka smartphone dalakoaren pantailan agertzen bada, eta sartzen dan lehenengo txanpona on-line etxeak doan eskaintzen deusun txanpona bada, zail be gertatu daiteke apustu egiten ez jarraitzea. Testuinguru honetan, aukera askotxo dago ludopatian jausteko.

On-line jokatzen daberen personeren %2,5aren zaletasuna, patologia bihurtuko da. Ludopatiaren ezaugarri nagusia, jokatzeke grina ezin dala kontrolatu da. Ondorio larrienetakoa, pertsona gauetik egunera erabat hondatzen dala da:



Balizko neurriak

Ikusitakoa ikusita, 2013an mahaiganieratu zan joko arduraturako estrategia ezartzeko beharizana. Estrategia horren baitan jasotzen ziran jokoak eragin daiken kaltea ahalik eta gehien gitxitzeke politikak eta egitarauak. Baina ez da nahikoa izan, ez dalako ezer egiten joko patologikoa ahalbideratzen dauan eragileetako bat saihesteko: larregizko galera ekonomikoa jokalarieren aldetik. Jokatzen daberen galerak mugatzeak, sektorearen irabaziak gitxitzea dakar; baina edozeinek daki herritar guztiek euren osasuna babestuta izateke eskubidea interes ekonomikoko guztien gaineratik dagoala... **Ala, ez?**

Hausnarketarako

Badot gai honen eta bere ondorioen inguruko barririk?

Nik ala nire ingurukoek, baliatzen dira honako zerbitzuek? Zelan? Zelako maiztasunez? Zenbat jokatzen dau?

Zelan erabilten dodaz sare sozialak? Tresna dira, denpora-pasa edo funtsezko nire eguneroko bizitzan? Zenbat denpora kentzen deutset gainerako jarduereri sare sozialetan egoteko?

Zer egingo dot?

Jarduerak

- * Inguruan kirol-apustuak eta sare sozialak darabilzaneke benetako informazioa emon.
- * Aisialdian beste batzuekatz batera egin daikedazan jarduerak (boluntario lez, kirola...) edo neure buruarentzat aberasgarri diranak (irakurketa, musika...) garatu.
- * Apustuen, sare sozialen... inguruan jakinaren gainean egon.

Irakurgai interesgarriak (estekak)

- [Jokoa normalizatzea, apustu arriskutsua.](#)
- ["Juego Ético": un compromiso en la prevención de la adicción al juego desde el ámbito político y social.](#)
- [El infierno de la adicción a las apuestas.](#)
- [Webs de apuestas, raperos y un público cada vez más joven.](#)
- [El ludópata ya no es un señor mayor que juega a las tragaperras. Es un joven que va a salones y apuesta por internet.](#)
- [Una vez que empiezas y aciertas, pasas de jugar 10€ a 100€ \(bideoa\).](#)